

## **FAMERIJELEN (GALTZAGORRIEN) BEHARRAK**

*Kortezubiko Matias Aranazek kontatuta 1920an*

Kortezubin Galtzagorriei *Famerijelak* zeritzen. Gizon batek erosi zituen famerijelak behar egiteko. Orraztokian zituen. Etorri zitzaionean behar egiteko motiboa, atera zituen orraztokitik. Agindu zien beharra. Amaitu zutenean etorri zitzaizkion etxera. Agindu zien behar berria. Amaitu zuten beharra, eta joan zitzaizkion hau esanez:

- Zer egingo dugu?

- Etorri zitzaizkion laugarren aldiz. Gizonari beharra amaitu zioten. Gizonak gogoratu zuen behar berria. Agindu zien galbalian ura ekartzeko. Hasi ziren ekartzen. Galbalian ezin ekarri egon ziren, galbalian azpitik zuloak zituelako. *Famerijelak* gelditu ziren egin ezinik, ugazabak agindu zien beharra egin ezin zutelako. *Famerijelak* baino gizon on baten jakituria gehiago zelako, *famerijelak* joan ziren atzera.

**Joxe Miel Barandiaran**

Obras Completas Tomo II

Eusko-Folklore

Editorial La Gran Enciclopedia Vasca

Bilbao, 1973